

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

Euskalgintzaren *Gizarte kapitala*

ZEIN DA euskararen eremuan dagoen *Gizarte kapitala*? Zer da, baina, *Gizarte kapital* delako hori?

LEIRE LOPEZ-GIL arabarrak Robert Putnam-en *Gizarte kapital* kontzeptua baliatu zuen, HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondoko bere ikerlanean. Ikerketaren izenburuak berak egilearen asmoaren berri argia ematen digu: *Gasteizko erakunde publikoen eta herri ekimenaren arteko osagarritasuna euskalgintzan*. Balizko osagarritasun hori da, hain zuzen ere, gaur egun euskararen unibertsoan eztabaidagai dagoen puntuetako bat.

Zergatik hautatu du Leire Lopez-Gilek kontzeptu hori? Berak esana: euskararen inguruan gizarte aldaketa bat gauzatuko bada, batetik, “harreman-sare sendoa” eta, bestetik, hori lortzeko “konfiantza maila altua”, bi-biak, beharrezkoak direlako.

Nolakoak dira harreman-sareak eta elkarrekiko konfiantza euskararen eremuan? Aspaldiko partez, onenak dira; aurrera begira, hala ere, hobetzeko premia handiz.

HITZAREN BALIOA. “Hitza ematea”k asko balio izan du euskal gizartean, mendez mende. Erdaraz esanda ere “euskaldunaren hitza”k esanahi garbi bezain sendoa (izan?) du atzerrian. Hitzaren balio hori elkarrekiko konfiantzaren gain eraikia da.

Egungo estatistikei erreparatuz eta EAEko biztanleek lagun hurkoengan dugun konfiantza neurtuz, baliorik handiena (10etik 7 puntu) familiaren eta lagu-

nen sareetan jartzen dugu, eta txikiena (4,5) instituzioetan (EUSTAT, 2013: *Kapital sozialaren inkesta*). Instituzioek badute zertaz hausnartu, beraz. Baita herritarrok instituzioekiko jarreraz ere.

Bada aldea, ordea, inkesta horri erantzuteko erabil den hizkuntzaren arabera: euskaraz erantzun dutenen %38k “konfiantza maila handia” adierazten du orokorrean, maila hori erdaraz erantzun dutenengan %26koa izanik. Euskaldunen artean, hitzak balio handiagoa izaten jarraitzen ote du?

EUSKALGINTZAN ERE BAI. Baietz uste dut. Beste lekutan ez bezala, gurean “hitza” berme handia da oraindik ere. Giro profesionalean, adibidez, hitzez hartutako konpromisoek izugarri errazten dute funtzionamenduen konplexutasuna eta, horren ondorioz, kostuak ere murrizten dira. Bere txikitasunean, euskalgintzak ere indar-metaketa bezain premiazkoa du eragileen arteko harremanak erraztea. Bestela jai du.

Horiek horrela eta Gasteizko euskalgintzan pentsatuz, hona hemen Lopez-Gilek idatzitakoa, horrekin bere lanari amaiera emanez: “Hortaz, Putnamek proposatutako gizarte kapitala abiapuntu hartuta, (...) sare sendo eta trinkoa lor daitekeela pentsatzen dut. Hori bai, talde bakoitzak bere eginkizun, betebeharrak eta nortasuna alde batera utzi gabe. Azken batean mugimendu heterogeneo baten beharra dago, uztargarria dena, noski”. Hala bedi! ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

(D)uda

UDA piloto automatikoaren garaia da: opor-rak, bestak Iruñean, Baionan ala Bilbon, hondartzetako egonaldiak pentsamendu zimizarik zilegitu gabe lanean daudeneko. Plazer hutsa. Ez guztientzat ordea. Turismoaren profesionalak, dagoeneko hala erraten baita, ez dira segur aurrean sakelak sose emokatuko dituztenik aitzineko urteetan bezala. Udatiarren lumatzeko ohitura hartua zuten hemengo iritzi publikoaren baimenarekin.

Hasteko eta bat euri sobera egin du udaberrian *manque à gagner* erraldoia eraginez. Krisiaren aferra gero. Ahoak eman ahala salatzen duten langilego alferraren

baliabide ekonomikoak murrizteko austeritate politikak txalotzen dituzten arren ez dute onartzen hiritar pelege horiek (ustez) hain erraz irabazten duten dirua gazta, urdaiazpiko, erreximeta edo girgila erosten ez xahutzea. Antza, moltsen ezpainak hertsatzen ari dira (sic).

Jakin dezatela turismozale falangatsuek 2013ko uztaila-agorritetako gure egunerokoa *decreixent* moduan harilkatzea erabaki dugula, soilik beharrezkoa eta diru omnipotentea premiazkoa ez duen bizi-pozaren ildokoa.

Tossudament alçats... gu ere! ■

